



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA-OHARRA

## **NAGUSI INTELLIGENCE CENTERREK 6 ENPRESA HARTU DITU DABORDUKO, ZIDARREZKO EKONOMIA BULTZATZEKO**

- **Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko diputatuak BEAZen jardueraren eta Nagusi Intelligence Center (NIC) eta Bizkaia Orekan Sakonduz proiektuen balantzea egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan**
- **Elkarrekin Bizkaiak egindako ahozko erantzun-eskeari erantzunez, ukatu egin dau Mercabilbao Ezkerraldea-Meatzaldea Parkera lekualdatuko danik**

(Bilbon, 2022ko bagilaren 21ean). Aldundiak “aurrerapausuak emoten jarraitzen dau”, zahartzearen, osasunaren eta iraupen luzeko zainketen inguruan jarduera-sektore barria sustatzeko. Urduliz Torreko hirugarren eta laugarren solairuetan igazko urrian zabaldu zan Nagusi Intelligence Centerrek (NIC), “6” enpresa (“4 startup eta ETE bi”) hartzen ditu, Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldian baieztu dauenez. Guztira, “11” persona instalau dira daborduko “NIC gunean”.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren Sustapenerako batzordearen eskariz, foru arduradunak zentro horren eta BEAZ foru enpresearen jardueraren eta Bizkaia Orekan Sakonduz proiektuan egiten ari dan lanaren errepassoa egin dau gaur eguerdian Foru parlamentuan. Ganera, Elkarrekin Bizkaiak Bilbao Bizkaia 2030 turismo planari eta Mercabilbao Meatzaldeko lurretara eroateari buruz egin dituan hainbat erantzun-eskeri erantzun deutse.

Basurkok ziurtatu dauenez, BEAZen Zerbitzu Zorroaren laguntzeagaz, NICek 6 enpresa horreen ezarpenaz gain, Silver Economy izenekoaren arloan behar egiten daben beste “26 enpresa” erakartea lortu dau. Zortzi hilebeteko ibilbidean, Urdulizko zentroan gaikako zazpi berbaldi izan dira, “Senior” sektoreari begira, batez be, “152” persona bertaratu dira, eta “25” hizlarik hartu dabe parte. Horrez gain, ekitaldi bi egin dira, bata NIC bera aurkezteko eta bestea erakundeko Zaintza eta Adimen Lehiakorreko Zerbitzua aurkezteko. “Retos Biok” ekimenari jagokonez, IMQk eta Segurmak martxan jarritako erronka bitan ari da lanean, soluzinoak emoteko beste konpainia batzuk aurkeztu diran deialdien bidez.

Zerbitzu aurreratuetan eta industria arloko enpresetan tokiko eragileen bidez eskualdeen lehiakortasuna indartzea helburu dauen Bizkaia Orekan Sakonduz



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

proiektuari jagokonez, une honetan, bere sarea, “12 eskualde” ordezten dituen eta Bizkaiko ia udalerrri guztiak hartzen dituen “24” agentziak osatzen dabe: lurraldearen “% 94a” hartzen daben “107” udalerrri.

Joan dan urtean, Ekonomia Sustatzeko sailak aurrekontuaren “% 19” bideratu dau tokiko agentziek eta beste aliau estrategiko batzuek osatutako sare horretara, hau da, “1.047.426 euro”, aurreko urtean baino % 12 gehiago. 2021ean “67 ekimen” eta “608” enpresa artatu ziran.

Holan, Olatz Goitia BEAZeko zuzendariak 2021ean zehar foru enpresa horrek izan dituan lan-esparruak azpimarratu ditu. Orain dala bost urtetik hona, ideatik hasi eta gauzatu arte enpresei laguntzen deuten zerbitzu-zorroa eregi dau. Horretarako mentoreen sarea dago, bai eta prestakuntza espezializaua, azelerazio-, finantzaketa- eta nazinoartekotze-prozesuak eta enpresak zabaltzeko laguntzak be. Une honetan, bertokoak diran edo beste erakunde batzuek garatu diran “8 enpresa-inkubagailu” dagoz.

## MERCABILBAO, URTUELLARA

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak Mercabilbao Urtuellara eroatearen inguruko azalpenak eskatu deutsoz Aldundiari. Israel Escalante alderdi horretako batzordekideak, orain Basaurin dagozan instalazioak hartuko dituan lekua Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa izango ete dan galdetu deutso Basurkori. Hasiera batean parkeak erabilera industrialia euki behar eban, eta horrek esan gurako leuke erabilera “beste norabide batean bideratuko” dala.

Basurkok ukatu egin dau bataren eta bestearen artean hartu-emonik dagoanik. “Ez dago aldaketarik” Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoari emongo jako “eukian”; enpresa teknologikoak bertan ezarteko eskaria “aurreikusitakoa baino handiagoa” da. Gaur egun Energy Intelligence Center (EIC) izenekoa eta parkearen egoitzaren eraikina eregiten ari dirala baieztu dau Aldundiko arduradunak. “50 enpresa baino gehiago egongo dirala eta 2.000 lanpostu zuzen baino gehiago sortuko dirala” uste dau.

Mercabilbao Meatzaldera eroateari jagokonez, diputatuak adierazo dau “50 hektareako” azalera daukan (13 hektarea hartzen ditu gaur egun Basaurin dagoan zentroak) Urtuellako Elikagaien Campus barria izango litzatekela bere kokalekua. Lekualdaketea “aukera kontua” da, “laugarren eta bosgarren gamako produktuen garapena, elikagaien robotika, analisi-laborategiak, prestakuntza-jarduera eta garatzeko eta merkaturatzeko Mercabilbaon proba-banku ezin hobea aurkituko dauen ikerketa-jarduera bera gauzatzeko”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## EL NAGUSI INTELLIGENCE CENTER COBIJA YA A 6 EMPRESAS PARA IMPULSAR LA ECONOMÍA PLATEADA

- La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, hace un balance en las Juntas Generales de Bizkaia de la actividad de BEAZ, y de los proyectos Nagusi Intelligence Center (NIC) y Bizkaia Orekan Sakonduz.
- En una respuesta a una pregunta oral de Elkarrekin Bizkaia, niega que Mercabilbao se vaya a trasladar al Parque Ezkerraldea-Meatzaldea.

(Bilbao, a 21 de junio de 2022). La Diputación “sigue dando pasos” para impulsar un nuevo sector de actividad en torno al envejecimiento, la salud y los cuidados de larga duración. El Nagusi Intelligence Center (NIC), abierto en las plantas tercera y cuarta de la Torre Urduliz en octubre del año pasado, acoge a “6” empresas (“4 startups y 2 pymes”), según ha confirmado hoy la diputada foral de Promoción Económica, Ainara Basurko, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia. Un total de “11” personas se han instalado ya en el “espacio NIC”.

A instancias de la comisión de Promoción Económica de la Cámara vizcaína, la responsable foral ha hecho un repaso en la Cámara foral este mediodía de la actividad de este centro, así como de la empresa foral BEAZ y del trabajo que se está desarrollando en el proyecto Bizkaia Orekan Sakonduz, además de responder a varias cuestiones que Elkarrekin Bizkaia le halanzado sobre el plan de turismo Bilbao Bizkaia 2030 y sobre el traslado de Mercabilbao a terrenos de Meatzaldea.

Ayudados a través de la Cartera de Servicios de BEAZ, Basurko ha asegurado que el NIC ha logrado, además de la implantación de esas 6 empresas, la adhesión de otras “26 empresas” que trabajan en el ámbito de la Silver Economy. A lo largo de sus ocho meses de vida, el centro de Urduliz ha acogido hasta siete charlas temáticas orientadas al sector “Senior”, con la asistencia de “152” personas y el concurso de “25” ponentes. Asimismo se han desarrollado 2 eventos, uno para presentar el propio NIC y otro para presentar el Servicio de Vigilancia e Inteligencia Competitiva de la entidad. Por su parte, la iniciativa “Retos Biok” está trabajando en dos retos lanzados por las empresas IMQ y Segurma, a través de sendas convocatorias a las que se han presentado otras compañías para ofrecer soluciones.

En cuanto al proyecto Bizkaia Orekan Sakonduz que busca reforzar la competitividad de las comarcas por medio de los agentes locales en servicios avanzados y en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

empresas industriales, su red está conformada en estos momentos por “24” agencias que representan a “12 comarcas” y que cubren casi la totalidad de los municipios de Bizkaia: “107” localidades que aglutinan el “94%” del territorio.

Durante el pasado año, el departamento de Promoción Económica ha destinado el “19%” de su presupuesto a esta red compuesta por agencias locales y otros aliados estratégicos, o sea, “1.047.426 euros”, con un incremento del 12% respecto al año anterior. En 2021 se atendieron “67 iniciativas” y a “608” empresas.

Asimismo, la directora BEAZ, Olatz Goitia, ha destacado también los ámbitos de trabajo en los que se ha movido esta empresa foral durante 2021. Desde hace un lustro, ha construido una Cartera de Servicios que acompaña a las empresas, desde la idea hasta su materialización, con una red de mentores, formación especializada, procesos de aceleración, financiación e internacionalización, y ayudas para la difusión de empresas, entre otros menesteres. En estos momentos existen “8 incubadoras” empresariales, que son propias o desarrolladas con otras instituciones.

## MERCABILBAO, A ORTUELLA

Por otro lado, Elkarrekin Bizkaia ha pedido explicaciones a la Diputación por el futuro traslado de Mercabilbao a Ortuella. Israel Escalante, juntero de esta formación, ha preguntado a Basurko si el traslado de las instalaciones ubicadas ahora en Basauri será al Parque Tecnológico de Ezkerraldea-Meatzaldea que inicialmente iba a tener usos industriales, lo que significaría “reorientar” su uso.

Basurko ha negado que haya relación entre uno y otro. “No hay cambios en el contenido” que se la va dar al Parque Tecnológico Ezkerraldea-Meatzaldea cuya demanda de implantación de empresas tecnológicas está siendo “superior a la prevista”. La responsable foral ha confirmado que actualmente se está construyendo el Energy Intelligence Center (EIC) y el edificio de la sede del propio parque. Estima que se ubicarán “más de 50 empresas y se crearán más de 2.000 empleos directos”.

En cuanto al traslado de Mercabilbao a la Zona Minera, la diputada ha señalado que su ubicación sería el nuevo Campus Alimentario de Ortuella, que cuenta con una superficie de “50 hectáreas” (13 ocupa ahora el actual centro en Basauri). El traslado es una “cuestión de oportunidad” para desarrollar nuevas actividades ligadas al “desarrollo de productos de gama cuarta y quinta, robótica alimentaria, laboratorios de análisis, actividad formativa y la propia actividad de investigación que encontrará en Mercabilbao un perfecto banco de pruebas para su desarrollo y lanzamiento”, ha dicho.